

## **BASKEPENSIONESEN I. ERANSKINA: Datuak Babesteko Politika.**

Baskepensionesek konpromiso irmoa jarraitzen du izaten datu pertsonalen babesarekin eta gure bezeroen informazioaren konfidentzialtasunarekin, eta uneoro eskainiko dute informazio eguneratu eta osoa erakundeak egindako datuen tratamenduaren inguruan, indarrean den araudiari jarraiki.

Horregatik, jakinarazten dizugu dokumentu honetan ematen dituzun datu pertsonalak eta aurrerantzean emango dizkiguzunak, osasun-datuak barne, erantzunkide gisa tratatuko direla. Datu horiek tratatzeko arduradunak Banakako Baskepensiones BGAE (aurrerantzean, «Baskepensiones BGAE»), IFK: V-20595260; helbide soziala: Garibai kalea 15, behea, 20004 (Donostia) eta Kutxabank, S.A. (aurrerantzean, «Kutxabank»), IFK: A-95653077; helbide soziala: Kale Nagusia 30-32, Bilbo dira, bien artean sinatutako banakako gizarte-aurreikuspeneko planak merkaturatzeko kontratuaren esparruan eta honako xehetasun hauen arabera:

<b>Datuak babesteari buruzko oinarrizko informazioa</b>	
<b><i>Erantzunkideak</i></b>	<p>Identitatea: Kutxabank, S.A. Helbidea: Kale Nagusia, 30- 32, 48009 (Bilbo). Posta elektronikoa: info@kutxabank.es Datuak Babesteko Ordezkarria: dpo@grupokutxabank.com</p> <p>Identitatea: Baskepensiones, Banakako BGAE Helbidea: Garibai, 15, 20004 (Donostia-San Sebastian). Posta elektronikoa: epsv@baskepensiones.es Datuak Babesteko Ordezkarria: dpo@grupokutxabank.com</p>
<b><i>Erabilitako datuen kategoriak.</i></b>	<p>Informazio zehatua aurkituko duzu Gidalerro hauen 3. atalean.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Zure kontratuen altan edo gurekin izan duzun harremanean zuk emandako datuak<ul style="list-style-type: none"><li>- Identifikazio eta harremanetarako datuak,</li></ul></li><li>- Produktuen eta zerbitzuen mantentzeari buruzko datuak.<ul style="list-style-type: none"><li>- Finantza datuak, Entitatearekin kontratatutako produktuak eta ordainketen historia.</li><li>- Zure eta gure artean horretan, bideokonferentzietan, telefono deietan edo pareko baliabideetan izan ditugun komunikazioetatik ateratako datuak.</li><li>- Baimena emanaz gero, gure online kanaletan egindako nabigazioetatik lortutako datuak, nabigazio historiari dagokienak.</li><li>- Gure web orrietatik edo aplikazio mugikorretatik edo haietan egingo dituzun nabigazioetatik lortutako datuak (gailuaren ID, IP helbidea eta nabigazio istorioa), cookien erabilera eta antzerako teknologiak onartu badituzu nabigazio gailuetan.</li></ul></li></ul>

<p><b><i>Tratamenduaren eta legitimazioaren xede nagusiak</i></b></p>	<p>Informazio xehatua aurkituko duzu Gidalerro hauen 4. atalean.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Bezeroaren alta, kontratatze eskakizunen ikerketa, kontratuaren aurreko neurrien aplikazioa eta arriskuen balioztapena egitea.</li> <li>- Kontratuko harremana egikaritzea, kudeatzea, kontrolatzea eta eguneratzea, bezeroen erreklamazioen kudeaketa barne.</li> <li>- Kontabilitate, lege, zerga eta administrazio arloetako obligazioak betetzea, kreditu ahalmenarekin, kapitalen zurtzearen prebentzioarekin eta iruzurreko jokabideekin lotutakoak barne.</li> <li>- Tratamendua xede estatistikoekin eta Entitatearen barne jarraipena, interes legitimoan oinarrituta.</li> </ul>
<p><b><i>Hartzaileak</i></b></p>	<p>Informazio xehatua aurkituko duzu Gidalerro hauen 6. atalean.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Agintari arautzaileak eta gainbegiraleak (Banco de España eta Europako Banku Zentrala, esaterako).</li> <li>- Estatuko Seguritasuneko Indar eta Gorputzak eta Epaitegiak.</li> <li>- Entitate ikuskariak.</li> <li>- Transakzioetan beharrezko lankide gisa jarduten duten beste erakundeak, Preskriptoreak, Higiezin Merkatuko Bitartekariak, higiezin guneei, Notarioei eta Herri Erregistroei lotuak ala ez.</li> </ul>
<p><b><i>Eskubideak</i></b></p>	<p>Interesdunak erreklamazio bat aurkeztu ahal izango dio kontrol-agintaritzari, baita datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurkaratzeko, tratamendua mugatzeko eta datuak eramateko eskubideak baliatu ere, eta datu pertsonalei buruzko banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko, profilak egitea barne, posta elektronikoko bidez edo tratamenduaren arduradunaren helbide sozialera zuzendutako jakinarazpen baten bitartez.</p>
<p><b><i>Jatorria</i></b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Interesatutik, haren legezko ordezkariatik edo ahaldunetik zuzenean.</li> <li>- Haiekin lankidetzak akordioak dituzten herri erakundeetatik eta pribatuetatik eskuratuak.</li> <li>- Denon eskura dauden sarbide-iturriak, prentsa, sare sozialak, Internet, aldizkari ofizialak, erregistro publikoak, Herri Administrazioen ebazpenak, Katastroa, telefono-gidak eta elkargo profesionaletako pertsonen zerrendak.</li> </ul>



## 2 Tratamenduaren erantzule partekatuak

### Tratamenduaren erantzule partekatuak:

- ☒ Baskepensiones, Banakako BGAE. Helbide soziala: Garibai kalea 15, 20004 (Donostia-San Sebastian)
- ☒ Kutxabank, S.A. Helbide soziala: On Diego Lopez Haroko Kale Nagusia 30-32 (Bilbo, Bizkaia, Espainia)

Kutxabankek eta Baskepensionesek **Datuak Babesteko Arduraduna** izendatu dute, eta hark erantzungo die zure datu pertsonalen tratamenduari eta zure eskubideen erabilerari buruzko edozein galderari. Datuen Babeseko Arduradunarekin jar zaitezke harremanetan zure iradokizunak, galderak, zalantzak edo erreklamazioak helarazteko, hurrengo helbidearen bitartez: [: dpo@grupokutxabank.com](mailto:dpo@grupokutxabank.com)

Baskepensiones B.G.A.E. entitatearen datu pertsonalen tratamenduaren xedea bazkide arrunten eta B.G.A.E onuradunen atxikipeneko kontratu-harremana formalizatzea, kudeatzea eta gauzatzea da. Tratamendu honen oinarri legegilea atxikitze kontratu horren egikaritzea izango da.

Kutxabanken datu pertsonalen tratamenduaren xedea bezeroei kalitate goreneko zerbitzua ematea, haien interesak hobeto babestea eta produktuei atxikitze kontratuko harremanaren ondorioz gerta daitekeen intzidentzia ororen jarraipen hobia egitea da.

Tratamendu honen oinarri legegilea aipaturiko Entitateetako bazkideei kalitatezko arreta ematean eta halako eragiketen administrazio zuzeneko bermeak sendotzean oinarritzen da.

Adierazitako arrazoiengatik, Kutxabankek datu pertsonalen tratamenduarekin lotutako eragiketak egiten ditu, bere izenean zein besteenean, eta baita erantzule guztien kontura ere.

Nolanahi ere, zure eskubideak erabili ahal izango dituzu Kutxabank S.A.-ren eta/edo Baskepensionesen aurrean.

## 3 Datuen kategoriak

Kutxabankek eta Baskepensionesek **datu pertsonal desberdinak tratatzen dituzte** gurekin ezarriko dituen informazio eskaerak edo kontratu aurreko edo kontratuko harremanak kudeatzeko.

Jarraian, tratatuko ditugun datuen kategoriak azalduko ditugu, aipaturiko datuen kategoria guztiak datuen tratamendu guztientzat erabiltzen ez direla jakinik.

Egiten dugun tratamenduaren jardueren xehetasunean, 4. Atalean bildu duguna, tratamendu zehatz bakoitzeko erabiltzen diren datuen kategoria zehatzak aurkituko

dituzu. Horrela, DBEOk biltzen dituen eskubideak erabiltzea ahalbidetuko dizun informazio guztia izango duzu, **aurkaratzea** eta **baimena baliogabetzea** bereziki. Hurrengoak dira tratamendu ezberdinak erabiltzen dituzten datuen kategoriak:

- **Zure kontratuen altan edo gurekin izan duzun harremanean zuk emandako datuak, bai zuzenean bai zure ahalduaren edo legezko ordezkariaren bitartez**, eta baita tratamendu enkarguen akordioak dituzun entitate publikoek eta pribatuek ere:
  - Datu identifikatzaileak eta harremanetakoak: nortasun dokumentua, izena eta abizena, sexua, posta kontaktuko informazioa, telefonoa eta elektronikoa, bizitokia, hiritartasuna eta jaiotze data.

Datu pertsonalak pertsona ezinduen guraso ahala duten pertsonak edo legezko ordezkariak ematen dituztenean, haiek emango dute baimena Kutxabankek datuok erabili eta tratatzeko, Gidalerro hauetan azaltzen diren xedeekin.

Zuk hirugarrenei emandako informaziotik ateratako datuak, gertatuz gero, hirugarren horiek Kutxabanki ematen badizkiete, Kutxabank S.A.-ren datu-baseetan sartu aurretik baimena behar dute.

Kasu horretan, Kutxabank zurekin jarriko da harremanetan hilabete bateko epean, bezeroen datu pertsonalen Gidalerro hauetan datorren informazioa emateko.

Kontratu harremanak irauten duen bitartean zuk Kutxabanki emandako datu pertsonalen egiazkotasuna bermatzen duzu, eta jakitun zara Bankuari jakinarazi behar diozula haietan gertatutako aldaketa oro, datuen babeseko gidalerro hauetan aurreikusitako efektuekin. Nolanahi ere, Kutxabankek, aipatutako jakinarazpena egiteko betebeharra alde batera utzi gabe, aldizka eskatu ahal izango dizu Entitateak zuri buruz dituen datu pertsonalak berrikusteko eta eguneratzeko; halaber, bidezko egiaztapenak egiteko legitimazioa izango du, indarrean dagoen araudiaren arabera.

- **Produktuen eta zerbitzuen mantentzeari buruzko datuak.** Hauek dira datuak:
  - Finantza datuak: ohar eta eragiketen informazioa
  - Datu digitalak:
    - Zure eta gure artean hormetan, bideokonferentzietan, telefono deietan edo pareko baliabideetan izan ditugun komunikazioetatik ateratako datuak.
    - Identifikatutako gure online kanaletan (Banka Mugikorra eta Online Banka) egindako nabigazioen bidez lortutako datuak, nabigazio historiari buruzkoak (bisitatutako orrialdeak edo atalak eta edukietan klik), baimena eman badigu.

- Gure web-orrietatik edo aplikazio mugikorretatik edo haietan egingo dituzun nabigazioetatik lortutako datuak (gailuaren ID, IP helbidea eta nabigazio istorioa), cookien erabilera eta antzerako teknologiak onartu badituzu nabigazio gailuetan. Kutxabanken politikari buruzko informazioaren xehetasunak kontsulta ditzakezu cookiekin lotutako tratamenduetan, Kutxabanken jabetzako orrialde bakoitzean. Cookien bitartez egiten den tratamendu hau, webgunea funtzionatzeko beharrezkoak direnak salbu, Kutxabankek existitzen diren webgune bakoitzean cookien erabilerarako emandako baimena duenean bakarrik egingo da, non Cookien Politika bat dagoen, halako tratamenduaren inguruko informazio guztiarekin. Gainera, nabigazioko zure ohiturak tratatuz gero, zuk bisitatutako orriak ere sartuko dira. Tratamendu hori egin ahal izateko, tratamendu horietako bakoitzarentzat alde zuzeneko baimena eskatuko dizugu.

Inola ere ez ditugu tratatuko lehiakortasuna edo enpresa sekretuak urra ditzaketen datuen erabilerarik egingo.

## 4 Zein tratamendu ematen diegu zure datuei?

Egiten ditugun tratamenduek hainbat xede eta lege-oinarri dituzte.

### 4.1 Bezeroari alta ematea eta kontratatzea eskatzea edo kontratuak formalizatzea.

#### Tratamenduaren deskribapena

Zure datuak gure sistemetan alta eman aurretik, pribatutasun politika horren berri emango dizugu, eta, ondoren, eskatzen diguzun kontratu aurreko jarduera edo kontratu harremana hasteko behar diren gutxieneko datuak eskatuko dizkizugu.

Kutxabankek, bestek beste, hurrengo tratamenduak egingo ditu:

- Bezeroen onarpenerako beharrezkoak diren datuak eta dokumentuak bildu
- Produktu baten kontratazioa kudeatu
- Produktuen eta zerbitzuen kontratuen sinadura formalizatu.

#### Tratamenduaren xedea

Tratamendu honen xedea bezero gisa alta izapidetu eta aztertzeke zure datu pertsonalak tratatzea, kontratatzeke eskaera edo kontratuak formalizatzea da.

#### Tratamenduaren oinarriak

Tratamendu horiek unean indarrean dagoen bezeroen onarpenaren eta alden prozesuen inguruan eta produktu bakoitzaren kontratazio prozesuen inguruan legerian zehaztutako obligazioetan oinarrituta egingo dira.

#### **Erabilitako datuen kategoriak**

Hauek dira Kutxabank xede horiekin erabiliko dituen datuak:

- Zure kontratuen altan edo gurekin izan duzun harremanean zuk emandako datuak.
- Produktuen eta zerbitzuen mantentzeari buruzko datuak.

## **4.2 Kontratu harremanaren garapena, kontrola, mantentzea eta eguneratzea**

#### **Tratamenduaren deskribapena**

Hauek dira egingo diren tratamenduen eragiketak:

- Zuk emandako datuen eskaerak edo aginduen tratamendua.
- Eragiketen, kobratzeen eta berriz kobratzeen kudeaketa.
- Kutxabanki eragiten dioten espediente prejudizialen, administratiboen, judizialen edo arbitralen auditoretza jrduerak eta, hala badagokio, kudeaketa eta kontrola egitea, kontratu harremanaren esparruan.
- Jasotako erreklamazioen harrera, izapidetza, kudeaketa, erantzuna eta informazioa.

#### **Tratamenduaren xedea**

Tratamenduaren xedea kontratuan bildutakoa garatzea, kontrolatzea, mantentzea eta eguneratzea da.

#### **Tratamenduaren oinarriak**

Tratamendu horiek beharrezkoak dira ezarriko dugun kontratu bidezko erlazioari eusteko eta baliteke haiek ez emateak harreman hori kudeatzea galaraztea edo zailtzea, Entitatearen kontratuzko eta legezko obligazioak beteaz.

#### **Erabilitako datuen kategoriak**

Hauek dira Kutxabank xede horrekin erabiliko dituen datuak:

- Zure kontratuen altan edo gurekin izan duzun harremanean zuk emandako datuak.
- Gurekin duzun harremana mantentzeari buruzko datuak.

#### **Datuak lagatzea**

Kutxabankek zure datuak laga ahal izango dizkie eskumena duten agintariei, kontroleko eta gainbegiratzeko erakundeei, judizialei, administratiboei eta zerga arloko agintariei, aplikatu behar diren une bakoitzean indarrean dauden arauak betetzeko, are zehatzago baina mugatu gabe, banku eta finantza arloetan, adibidez.

Halaber, Kutxabankek zure datuak laga ahal izango dizkie izapidetzeak burutzeko beharrezkoak dituen kolaboratzaileei, preskriptoreei, auditoreei, Notarioei eta Herri Erregistroei, esaterako.

## **4.3 Betebehar kontableak, legalak, fiskalak eta administratiboak betetzea da.**

### **Tratamenduaren deskribapena**

Adibide gisa, baina mugatu gabe, xede horiekin egindako tratamendu aipagarrienak adierazten dizkizugu.

- Entitatearen betebehar kontableak betetzea.
- Entitateen zein pertsona fisikoen edo juridikoen betebehar fiskalak betetzea banako fiskalitatearekin lotuta, egindako eragiketen ondorioz.

### **Tratamenduaren xedea**

Tratamenduaren xedea betebehar kontableak, legalak, fiskalak eta administratiboak betetzea da.

### **Tratamenduaren oinarriak**

Zure datu pertsonalak nahitaez tratatu behar ditugu Entitateari bere jarduerarengatik eskatzen zaizkion obligazio kontableak, fiskalak eta legalak bete ahal izateko.

### **Erabilitako datuen kategoriak**

- Zure kontratuen altan edo gurekin izan duzun harremanean zuk emandako datuak.
- Gurekin duzun harremana mantentzeari buruzko datuak.

### **Datuak lagatzea**

Kutxabankek zure datuak laga ahal izango dizkie eskumena duten agintariei, kontroleko eta gainbegiratzeko erakundeei eta zerga arloko agintariei, aplikatu behar diren une bakoitzean indarrean dauden arauak betetzeko, are zehatzago baina mugatu gabe, banku eta finantza arloetan, adibidez.

Halaber, Kutxabankek zure datuak laga ahal izango dizkie izapidetzeak burutzeko beharrezkoak dituen kolaboratzaileei, Notarioei eta Herri Erregistroei, esaterako.

## **4.4 Tratamendua xede estatistikoekin eta Entitatearen barne jarraipena egiteko xedearekin.**

### **Tratamenduaren deskribapena**

Hauek dira Entitatearen jardueren jarraipena egiteko eta haien estatistikak eraikitzeke egin diren tratamenduak:

- Bezzeroen datuak multzokatzea, estatistikak egiteko.
- Datuak antolatzea txosten eta eredu estatistikoak egiteko.

### **Tratamenduaren xedea**

Tratamenduaren xedea txosten estatistikoak eta eredu matematikoak egitea da, Entitatearen jardueraren kudeaketarako eta jarraipenerako.

### **Datuen kategoriak**

Hauek dira xede horrekin erabiliko diren datuen kategoriak:

- Zure kontratuen altan edo gurekin elkarrizketa edo formulario bitartez izan duzun harremanean zuk emandako datuak.
- Produktuen eta zerbitzuen mantentzeari buruzko datuak.
- Datuen gainerako kategorien analititik eta tratamendutik Kutxabankek eragindako edo kendutako datuak.

### **Tratamenduaren oinarriak**

Tratamenduaren oinarria Kutxabankek bere enpresa jarduera garatzeko interes legitimoa da.

## **5 Zenbat denbora gordeko ditugu zure datuak?**

Kutxabank eta Baskepensiones entitateek zure datuak gordeko dituzte kontratuaren harremanak irauten duen bitartean edo tratamendu bakoitzaren xede zehatzerako beharrezkoak diren bitartean.

Adostasunean oinarritutako datuen tratamenduek indarrean jarraituko dute, zuk espresuki ezeztatzen dituzun arte edo gurekin kontratuzko edo negozioko harremanak amaitu arte.

Baimena ezeztatzen denean edo kontratu edo negozio harremanak amaitzen direnean, neurri teknikoak eta antolamendukoak ezarriko ditugu, zure datuak indarrean dauden legezko betebeharrak betetzeko bakarrik erabiltzen direla bermatzeko.

Entitateak zure datuak suntsituko ditu indarrean den eta Kutxabanken jarduera arautzen duen araudiak zehaztutako epean, administrazio ekintzen edo ekintza judizialen preskripzio epeak kontuan izanik.

Negoio harremana formalizatu edo produktu edo zerbitzua kontratatu aurreko fasean ekarritako datu pertsonalak sei hilabetez gordeko ditu Kutxabankek gehienez, eskakizunean epe luzeagoa adostu ezean. Izan ere, eskubidea duzu zure datuak betirako ezabatzeko epe laburragoan, nahi izanez gero.

Bideo-zaintza grabazioei dagokienez, Kutxabanken Segurtasun Pribatuko araudiak zehazten du hamabost egunez gorde beharko direla, grabatu ziren egunetik hasita, agintari judizialak edo Segurtasun Indar eta Kidegoek beste zerbait agindu ezean.

Arau-urratzei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko komunikazio eta ikerketekin lotutako datu pertsonalak beharrezkoa den aldi gordeko dira soilik, eta epe hori ezin izango da hamar urtetik gorakoa izan. Komunikazioa aurkeztu eta hiru hilabetez epean ikerketa hasten ez bada, komunikazioa sistematik ezabatuko da, sistemaren funtzionamenduaren ebidentziari eusteko izan ezik, eta modu anonimoan, egin gabeko jakinarazpenak badira.

## 6 Zein hartzaileri jakinaraziko dizkiogu zure datuak?

Kutxabank eta Baskepensiones entitateek ez dituzte zure datuak lagako, zure baimena edo legezko edo kontratuko betebeharreran oinarrituta egin ezean, honako hauek bezala:

- Jarraipen eta kontrolerako errekerimendu eta jarduketak betetzeko gainbegiratze agintariak.
- Epaitegi eta Auzitegiak, eta Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoak, Kutxabank pertsonal horiek jakinaraztera behartuta dagoenean.
- Banco de Españaren Arriskuen inguruko informazioko zentrala eta diruzko obligazioak ez betetzearen inguruko fitxategiak, beteko ez balitz.
- Haien kontratuak izapidetzeko eta produktu eta zerbitzuak kudeatzeko beharrezkoak diren kolaboratzaile gisa jarduten duten entitateak, Notarioak, Erregistro Publikoak eta higiezin merkatuko preskriptore eta bitartekariak, lotuak ala ez, higiezin guneak esaterako, berariaz onartuak eta informatuak.

Kasu horietan, Kutxabankek eta Baskepensionesek tratamendu enkarguko kontratu horiek indarrean den legeriak eskatzen dituen berme guztiak bilduz formalizatuko dituela bermatuko dute. Tratamenduaren arduradunek ezingo dute inola ere ez bere xedeekin edo kontratu bakoitzean zehaztutakoak ez diren bestelako xedeekin erabili.

## 7 Datuen nazioarteko transferentziak

Arau orokor gisa, Kutxabank eta Baskepensiones entitateek ez dizkiete beste enpresa lokalizatu batzuei edo zerbitzariak Europako Esparru Ekonomikotik kanpo dituzten enpresei datu transferentziarik egiten. Izan ere, nazioarteko transferentzia horiek egiten direnean, Kutxabankek eta Baskepensionesek berme egokiak eskaini dituzten edo araudian zehaztutako legeztatze printzipio berberetan oinarritutako herrialde edo bestela, erakunde batera egiten direla egiaztatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu.

## 8 Eskubideak erabiltzea

Zure datu pertsonalak **atzitzeko, zuzentzeko, aurkaratzeko, ezeztatzeko, mugatzeko, eramateko prestatzeko, baimena kentzeko eta erabaki automatizatu baten xede ez izateko eskubideak** ematen dizkizu legeak.

Eskubide horietaz baliatzeko, bide hauetako edozein erabil dezakezu, zure eskaera aurkeztuz eta, behar izanez gero, zure nortasun agiriaren kopia ere bai:

- Posta elektronikoz, Kutxabanken eta Baskepensionesen helbide korporatiboen bidez.
- Posta elektronikoz: [info@kutxabank.es](mailto:info@kutxabank.es) edo [epsv@baskepensiones.es](mailto:epsv@baskepensiones.es)
- Zuzenean gure datuen babeserako ordezkariari, hurrengo helbidean: [dpo@grupokutxabank.com](mailto:dpo@grupokutxabank.com)

Gainera, zure datuen tratamenduarekin lotutako erreklamaziorik baduzu, **Datuen Babeseko Espainiako Bulegora zuzendu zaitezke** ([www.aepd.es](http://www.aepd.es)).

Eskubideak	Arretarako bideak eta kontuan hartzekoak
- <b>Sarbidea</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Zure eskubideak erabiltzeko, idatzizko jakinarazpen bat bidali beharko duzu Kutxabanken helbide sozialera edo mezu bat bidali <a href="mailto:info@kutxabank.es">info@kutxabank.es</a> edo <a href="mailto:epsv@baskepensiones.es">epsv@baskepensiones.es</a> helbide elektronikora, eta beharrezkoa bada, eskakizunari zure NANaren kopia gehitu.</li><li>▪ Eskubide horiek dohain erabili ahal izango dira.</li></ul> <p>Zure ustez datu pertsonalak ez baditugu tratatu araudiak eskatzen duen bezala, Datuen Babeseko Arduradunarekin jar zaitezke harremanetan helbide honen bitartez: <a href="mailto:dpo@grupokutxabank.com">dpo@grupokutxabank.com</a>.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• Edonola ere, erreklamazioa aurkeztu ahal izango diozu Kontrol-Agintaritzari, are zehatzago Datuen Babeseko Espainiako Bulegoari, hurrengo helbidean: Jorge Juan kalea, 6, 28001, Madril.</li></ul>
- <b>Zuzentzea</b>	
- <b>Ezereztea</b>	
- <b>Aurkaratzea</b>	
- <b>Automatizatutako banako erabakiei aurkaratzea</b>	
- <b>Tratamendua mugatzea</b>	
- <b>Eramangarritasuna</b>	